

EGUNEKO GAIAK

EG1

TXILLARDEGI HIL DA

Bere ondarea, iparrorratz

Oihane LARRETXEIA | DONOSTIA

Txillardegik eta, hortaz, bere lanak, «liluratuta» zituen aspalditik euskaldunak eta euskaltzaleak. Bere heriotzak galera handia ekarri duela adierazi zuten askok atzo eta, *samina goxatzeko modu* bakarria dela, hain zuzen, bere ondarea bertan gelditu dela pentsatzea. Bidea ireki zuela goraiatu zuten ere eta, «argia» joan dela aitortu arren, bere ibilbidearekin jarraitzeko konpromisoa hartu zuten maite zutenek. Hori da aurrerantzean bidea egiteko hartu beharreko iparrorratza. Jon Benito eta Koldo Izagirre idazlea, Ramon Agirre aktorea, Mertxe Aizpurua Usurbilgo alkatea edota Ikerne Badiola Gipuzkoako Kultura diputatua ere izan ziren azken agurra eman zituzten artean.

Ramon LABAEN
Laguna

«Pieza bateko gizona zen»

Ja adin bera dute eta ibilbide ia paraleloa izan dute Labaienek eta Txillardegik. «Lehenengo Jose Luis zen, gero Txillardegik –argitu nahi izan zuen–. Bere burua euskaldun bihurtu zuen gizona zen, jo eta ke lanean, gaztetan ezagutu nuenean ez baitzekien

euskaraz eta gero ikasi baitzuen. Euskarari hainbeste eman dion gizona da eta euskarak hainbeste zor diona, nahiz eta aitortu behar ziotenek ez dioten inoiz aitortu. Gazte denboratan Franko hankaz gora jarri nahi genuen eta gure ametsa zen *ea nola berpiztuko* genuen Euskadi independente bat». Gerrako haur hauek denborekin ibilbide desberdinak hartu zituzten, batez ere politikari dagokionez, baina «azken urteetan gure bideak berriro hurbildu egin dira», zioen. Bilakaera politikari dagokionez, Txillardegik «idealizatza» jo zuen. «Mundu honi buelta eman nahi zion eta iraultzaile bat zen. Bestalde, pieza bateko gizona zen, intelektualki zorrotza, nahi baduzu ere zakarra, ergelkeriak ez zituelako onartzen. Pieza bateko gizona zen, gizon garbia».

Zigor ETXABURUA
Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria

«Berak egindako bidea jarraitzeko prest gaude»

Euskararen normalizazioaren alde egindakoari esker, beste askok ikasi duten guztia goraiatu zuten Etxaburuak, «bidegile

izan dela iritzita. «Gizon handi bat galdu dugu, eta argia galduko dugu –esan zuen–, baina prest gaude berak egindako bidea guk jarraitzeko».

Aurreko egunean beilatokira gerturatu zirenek adierazi zuten bezala, «iraultzailea» zela esan zuen, baita «integroa, erabat integroa, eta aldi berean apala» ere.

Mariano FERRER
Kazetaria

«Aldaketa ematen ari denaren sentsazioa dut»

«Agian besteen bidetik aldenduko naiz hau esanda, oso erraza baita politikari, idazle eta euskaltzalea zen Txillardegiz mintzatzea, Euskal Herrian hainbeste jenderen kontzientziatzaile den horretaz mintzatzea», adierazi zuen kazetariak. Ezin izan zuen, «adinagatik agian», ikuspegi pertsonaletik hitz egitea saihestu. «Ikusten dut nire bitzta partikularrean eta, denon biztazan orokorrean, esanahi handia izan duten pertsonak pixkanaka desagertzen ari direla. Eta halako aldaketaren sentsazioa dut...», erantsi zuen.

Hausnarketa sakonetan murgildu zen Ferrer aurreko egune-

an heriotzaren berri izan zuenetik. Lehenengo, bizi garenok haiengandik «zenbat gauza on aprobetxatuko ote ditugun», eta, bigarrena, «zenbat gauza utziko ote ditugun aprobetxatu gabe, beraienzat, bestalde, hain inportanteak zirenak». «Errespetu osoa merezi duen gizona da», ondorioztatu zuen.

Juan Mari TORREALDIA
Soziologoa eta euskaltzaina

«Distantziarekin bere irudia handituko zaigu»

Gertutik ezagutzen zuen «Jakin» aldizkariko zuzendariak. «Txillardegik gauza asko izan da –azpimarratu nahi izan zuen atzo eta gauza berri askoren abiapuntua izan da: Euskal Herri berriaren abiapuntuan egon da, euskaltzaleatasunean, herriaren abiapuntuan... eta gero nobelagintzan eta euskara batuaren abiapuntuan ere. Hitz batean zaila da laburbiltzea zer izan den, baina esango nuke distantziarekin bere irudia handituko zaigula. Nik beti izan dut etxeko anaia zahar bat izango balitz bezala, beti aitzindari; guk beti bere ildotik jarraitu dugu». Bere ustez, asko zor diogu Txillarde-

giri bere ausardiagatik –oso larritik ordaindu duen ausardia gainera–, baita bere inkonformismo intelektuala gizartearen zabaldu zuelako.

«Alderdi politikoan gainetik beti jartzen zuen euskara, eta horretan Martin Ugaldekin lotura ikusten diot –gehitu zuen–. Gaur egun naturala iruditzen zaigun hori bere garaian ez zen horrela, eta hori zor diogu Txillardegiri ere. Badakigu euskara batuak guraso asko dituela, baina niretzat, ez bakarrik linguistikagatik, baizik eta beste gauza askogatik, Txillardegik euskara batuaren gurasoa izan da. Euskaltzaindiak bedeinkazioa eman zion martxan zegoen prozesu bati, eta hor bultzatzailea Txillardegik izan zen».

Paul BILBAO
Kontseilua

«Bere adorea ez zen bulegoan gelditzen»

«Euskal soziolinguistikaren lehen urratsak berak eman zituen. Uste dut euskararen beharretik ekarpenak egiten zituen gizona izan zela Txillardegik, marketin instituzionalaz harago», esan zuen, segituan pertso-

Txillardegik, euskal «intelligentsia»-ren haritik

Andres URRUTIA | Euskaltzainburua

Unibertsitatean harrapatu nau Txillardegiren heriotzaren albisteak, hain zuzen ere, euskarazko ekitaldi batean. Hona nire lehen burutzioa, Txillardegiren gomutan: euskara eta unibertsitatea. Berak, beste batzuekin batera, errealtate horren egilea izan zen.

Gero, jakina, bestelako kontuak etorri zaizkit burura, hala nola, behinolako hitzorduak, Ned Thomas galestar soziolinguistarekin, Ondarroan emandako hitzaldi hura edota hamaika ekimen eta lan, euskararen sustatze eta babesletza zereginetan gauzatutak.

Belaunaldiei dagokionez, Txillardegik ekarri zigun guri, joan den mendeko 50-60 hamarkadetan jaiotakoek, halako hainze berria, desberdina, nobela zein saiakerarlotetan eta, oro har, gizartearen eta

kulturgintzaren esparru anitzetan. Osterantzeko tenore horrek zekarren, ekarri ere, euskararentzat etorkizuna eta bizi-raupena.

Ingurukoa aintzat hartuta, Txillardegik, beste askoren antzera, oro egilea izan da euskalgintzan, teorikoa nahiz eragilea. Letraz letra irentsi genituen guturiko askok, gose eta ezin ase ari ginenok euskararen munduan, haren lanak eta tituluak, euskara batuaren eraikitze proiektuan.

Euskara batua, euskararen aberri-tzea, euskararen normalizazioa... orduko kezak eta ardurak ziren, egun ere euskaldunoi ezinizona ekartzen dituganak. Txillardegik, bistan da, horiek askatu, erraztu eta aurreratzen ahalegindu da.

Kontuak kontu, Txillardegik gerra osteko euskal *intelligentsia*-ren berregite

prozesuan zeregin esanguratsuak bete ditu. Era berean, esker abertzalearen ildoan, ezbairik gabe, hots handiko lana egin du, ekintzaz nahiz lekukotzaz. Nobela egilea, saio egilea, soziolinguistikaren inguruko aditua, kazetaria eta maisua, irakaslea, aukera guztiak baliatu zituen edonon eta edonoiz, euskararen aldeko ideiak barreiatzeko eta gizarteratzeko.

Luze eta sakon jardun du Txillardegik euskalgintzan eta horren barruan, Euskaltzaindian ere. Haren emaitzak eredu-garriak eta aintzat hartzekoak dira eta haren meritua zalantzarik gabekoak. Aspaldiko euskaltzain urgazlea izanik, harriduraz ikusi genuen askok haren hautagaizak ez zuela aurrerapiderik euskaltzain oso izateko. Urte batzuk geroago, euskaltzain ohorezko izendatu genuen eta berak izendazio ho-

ri baino, nahiago izan zuen eta biziki eskertu ere, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak batera argitaratu eta Henrike Knörr zenaren eta Pilartxo Etxebarriaren zuzendaritzapean jaso zuen omenaldi liburua. «Nerekin yaio nun», 2005. urtean. Falta zena Euskaltzaindiaren literatura batzordeak ondu zuen 2007. urtean, haren lehen nobela, «Leturiaren egunkari ezkutua», aztergai hartu jardunaldi batean eta emaitzak kaleratu zituenean urte bereko «Euskara» agerkerian.

Joan zaigu Txillardegik. Etxekoek, bihotz-bihotzez, doluminak. Euskalgintzari, aldiz, itxaropena, garai latz haue-tan, apartera joan gabe, gurean baititugu aurrera egiteko gidariak. Besteak beste, Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegik.

na gisa nolakoa zen azaltzeko. «Adorea zuen bai horixe, baina bere adorea ez zen bulegoan geratzen zen horietakoa, kalera ere irteten baitzen, salatu behar zenean salatzeko, baina beti modo eraikitzailean».

Pasadizo ugaridun gizona, Bilbaok gogoratu zuen nola orain dela urte batzuk, erakundeetatik «euskaldunoi leporatzen zigtutenean euskara ez genuela erabiltzen, are gehiago, euskaldunok zabarkeriaz tratatzen genuela gure hizkuntza», berak erakutsi zuen «ezagutzak gora egiten ez zuen bitartean erabilerari ezin geniola gehiago eskatu». Bere ustez, «matematikoki erakutsi zuen euskaldunok oro har atxikimendu handia agertzen diogula hizkuntzari, orduko diskurtsoak gezurtatuz». «Bidelagun izan dugu, eta, inoiz gure hizkuntzaren berreskurapenaz mintzatzean, Txillardegik ohorezko lekua hartuko du», ondorioztatu zuen.

Juan Mari IRIGOIEN
Idazlea

«Jende gutxi eman dio herri honi berak adina»

Hitzak soberan zeudela adierazita, heriotza «sekulako galera» izan dela esan zuen. «Esango nuke jende gutxi eman diola herri honi, Euskal Herriari, gizon honek eman dion adina».

Blanca URGELL
Kultura sailburua

«Ekarpen erraldoia egin dio euskalgintzari»

«Nik uste Txillardegik ekarpen erraldoia egin diola euskalgintzari -adierazi zion Euskadi Irratiari- Euskalgintzan batez ere bultzatzailea izan da, eta hasieratik euskara batua eratzen hasi zenetik horretan egon zen. Beraz, alde horretatik gure hizkuntzaren normalizazioaren bultzatzaile bat izan da zalan-tzarik gabe». Batuaren alde egon zirenen artean bultzatzaile gehien egin zuenetarikoa izan zela uste du Urgellek, eta gogora ekarri zituen hizkuntzari bezala egin zituen ekarpenak, gramatika modernoa edo euskal fonologiaren inguruko ikerketak kasu. «Oso berritzailea izan



zen, lehenengoz egin zuelako euskarazko eskuliburu bat euskaraz hutsean». Bere ibilbide politikoak galdetzerakoan, «dena da estimagarri pertsona baten pentsamenduari eboluzioan, horixe azpimarratuko nuke -adierazi zuen- Berak gure herri honen garai asko ezagutu zituen eta garai bakoitzari erantzuna ematen saiatu zen. Nik azpimarratuko nuke, batez ere, bere azken garaian biolentziaren kontra eta bakearen alde egin zuen bidea».

Andres URRUTIA
Euskaltzainburua

«Haize berri bat, kalekoa, ekarri zuen euskarara»

Beste askok bezala, «erreferentia» erabili zuen Txillardegik laburbiltzeko. Hala ere, pentsalari teorikoak gainera, «gituen eta garai bakoitzari erantzuna ematen saiatu zen. Nik azpimarratuko nuke, batez ere, bi ezaugarri horiek dira, Urrutiaren ustez, bere lagunaren «biografian bete-betean» sartzen diren lorpenak.

Izerdi ugari bota zuen euskararen alde, lana eta lana normalizazioa lortzeko helburuaz. Gure hizkuntzara «haize berria» ekarri zuela adierazi zuen, hain zuzen «kaleko haizea». «Testu literarioetan, saia-keretan... irakurtzen genuen guztiak beste tenore bat zuen, beste espiritu bat zuen, beste esanahi bat», askorentzat «liluragarria» izan zena. «Hor ikusi genuen geure burua, hor ikusi genuen, euskararentzat hain giro latza zen hartan, itxaro-

Jose Luis Alvarez
Enparantza
«Txillardegik»
Donostiako Klub
Nautikoko
ontzirelekuaren
artziboko irudi batean.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

pen bat. Gidari izan dugu Txillardegik».

Ainhoa BEOLA
Aralar

«Ikasleek bere liburuez baliatu beharra dute»

«Sortzaile nabarmena», azken egunera arte lanean aritu zela goraipatu zuen. Are gehiago, «lanean baina elkarlanean» aritzen zela erantsi zuen: «Guk horretan badugu zer ikasi».

Ikasle garaiak etorri zitzaizkion gogora Beolari, bere liburu asko ikasgai izan zituela aipatu. Besteak beste, Txillardegik gramatika egindako lana errekonozituz; bere iritziz, «Euskal filologia ikasten ari den pertsona orok ezinbestean eskura izan behar ditu Jose Luisen sormen lan haiek guztiak».

Xabier MENDIGUREN
BEREZIARTU
Idazlea

«Hil arte, pentsatzen zuenaren arabera lanean»

Amore ematen ez zuena, «zalan-tzarik gabe, azken mendeetan eta aurreko erditik hona euskara batuan, literatura eta, oro har, pentsamendu politikoan, ikono handia» zela esan zuen. Euskal Herri euskaldun baten aldarria hartuta -eta berezko merituak esker eskuratua-, «koherentzia handikoa» zela erantsi zuen, hil arte pentsatzen eta sinesten zuenaren arabera lanean jarraitu duena, «abiatutako bidea azken arte jorratuz».

Tasio ERKIZIA
Ezker abertzalea

«Siglarik ez da gai izan bere sormena bultzeko»

Bere aburuz, Txillardegik zer bait izan bada, «euskararen izen handia, euskal kulturaren sortzaile eta bultzatzaile garrantzitsua, baita abertzalea ere» izan da.

Gizon handia zen Tasioren aburuz, eta «benetan herri gizona izan zelako, apala eta aberatsa, bere bihotza, bere iniziatiba eta sormena» alderdi edo sigla batzuek ezin izan dute sekula jaso, sekula bildu.